

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Gure funtsezko jarduera ekoizpena da, hau da, manufaktura-enpresa bat da Txinan, diseinu pertsonalizatuz apaindutako arropa diseinatzeko, ekoizteko eta entregatzeko betekizunak dituena. Alde batetik makinak eta bestetik pertsonak ditugu. 40 makina izango ditugu ekoizpena handia izateko. Makina hauek kontrolatzen, langile batzuk izango ditugu. Ekoizpenean lan egiten duten langileen artean, langile mota asko daude, bakoitzak lan bat daukala. Batzuk makinetan, beste batzuk josten, etab.

Enpresa guztietan bezala arazoak izango ditugu, bai enpresa barruan, bai bezeroekin. Arazo hauek konpontzeko, lantegian bertan izango dugu bezeroa atenditzeko gela bat, non langile batzuk bezeroekin hitz egingo dute arazoak entzuteko eta soluzio bat aurkitzeko. Enpresa barruko arazoetan, langile batzuk izango ditugu dena kontrolpean izateko, gainera, batzuetan enpresan egongo gara (Txinan) eta zerbait gaizki joatekotan erabaki bat hartuko dugu.

Web gune online bat daukagu. Honen bidez bezeroen eskariak hartu, fabrikara bidali eta ekoitzi ahal dugulako. Hortaz gain, Webgunetik itzulerak eta arazoen konponketak egiten ditugu.